



Xabier Iridoy

ONENA EMATEKO GARAIA

IRUNENTZAT EAJ-PNV-ren
PROIEKTUAREN AURKEZPENA



AURKIBIDEA

ETORKIZUNeko NIRE PROPOSAMENA	03
EKONOMIA ETA ENPLEGU PROIEKTUA	05
HIRIGINTZA, MUGIKORTASUN ETA INGURUMEN PROIEKTUA	10
GIZARTE ONGIZATE PROIEKTUA	19
KULTUR ETA KIROL PROIEKTUA	25
PROYECTO DE EUSKERA	26
HEZKUNTZA ETA GAZTERIA PROIEKTUA	27

ETORKIZUNeko NIRE PROPOSAMENA

Irungo Udalari buruz hitz egiten

Zalantzarik gabe, politika nola egin behar den nik dudak ikuspegia da, aniztasunetik eta akordioa helburu dela, beti batuz. Horretarako elkarrizketa, malgutasuna eta batez ere konfidantza beharrezkoak dira, hiru ardatzak zailtasunak gainditzeko.

Hori da gauzak egin eta erronkei aurre egiteko modua, eta horrela saiatu naiz egiten, pasa diren urtetan, nire aurreko arduetan lideratu behar izan ditudan lan taldeetan. Pertsona anitzek osaturiko unibertso bat, dinamikoa, non errealitate desberdin eta askori erantzun behar zaizkion batzuetan modu azkarrean, bestetan epe motzean, epe ertainean edo epe luzera, non hamaika ahots entzun behar diren.

Eta hori da ere nire proposamena datorren maiatzak 22ko hauteskundeen ondoren irekiko den garai berrian Irungo politikari aurre egiteko: kalearekin beti hurbilean izango den udal gobernua, elkarrizketa ezinbesteko tresna proiektuak zehazteko eta akordioak

bilatzeko, tinkotasuna eta gardentasuna erabakiak hartzerakoan, baina baita udal taldeei eta hiritarrei azaltzerakoan; instituzioen arteko jarraipeneko elkarlana, bai amankomuneko estrategiak finkatu eta garatzerakoan, eta baita ere zailtasunak eta desadostasunei aurre egin behar denean; eta konfidantza, elkarrekin udala eta hiritarrok, egingo dugula Irunek izan behar duena ezer baino lehen: irundar guztiontzat hiririk hoberena, hiri jasangarri eta atsegina, baina solidarioa eta konprometitua, hiri bat non segurtasunarekin bizi eta eta lan egin daiteken, ilusio eta egonkortasunarekin. Prest gaude!



**EKONOMIA
ETA ENPLEGUA**

EKONOMIA ETA ENPLEGU PROIEKTUA

Gaur egun, azken hamarraldietan ezagutu den krisialdirik garrantzitsuenean murgildurik gaude. Gogor astintzen ari da bai etxeko ekonomian, baita ekonomia publikoetan ere. Langabeziak, eskasiak, pobrezia, gure gizarteko zati handi bati eragiten dio eta erakunde desberdinek bilketan erorialdiak jasaten dituzte eta, ondorioz, zerbitzuak eta inbertsioak murriztera behartuta ikusten dira.

Kudeaketa publikoaren arloan krisi honek kudeatzaile txarrak agerian utzi ditu. Krisialditik aterako gara, baina ez guztiak modu eta denbora berean. Lehenengo eta hobeto aterako dira hoberen prestatuta daudenak. Gure erakundeek susperraldiko eragile bihurtu behar dute, eta ez oztopo. Oparoaldian ez zituzten guztiek baliabide publikoak modu berean kudeatu, eta kudeaketa modu desberdin honen ondorioz, ez diete guztiek krisiari eta errekupeazioari modu berean aurre egin. Desberdintasuna ikusteko, krisiaren aurretik izandako gobernuen adibideak ditugu, bai Euskadin eta baita Espainian ere.

Udal arlotik, inbertsioaren bitartez egin diezaiokegu aurre krisiari, hau susperraldirako eta enplegurako eragile nagusia baita, hiria behar berrietara egokitzeko eta gure bizi kalitatea hobetzeko oinarritzko tresna. Zoritxarrez, gure Udaletxea, urteetan Gobernu sozialistak kudeatu duena, egoera zail batean aurkitzen da, inbertsiorako gaitasunik gabe, krisi aurreko maila beretan mantentzen diren funtzionamendu gastuei lotuta eta argi eta garbi gure inguruko batez bestekoaren gainetik dagoen biztanle bakoitzeko udal zorrarekin.

Hiriko ekonomia

EAJ-PNVk proposatzen dituen jarduera ildoak ondorengoak dira:

- Ez dugu **lurzoru industrial**a eskaintzeko hedadura askorik (lurzoru industrial eskasa eta garestia). Apustu erabakigarriak ikerketara eta berrikuntzara zuzendutako proiektuen aldekoa izan behar du, baita teknologia aurreratua garatzen dutenen aldekoa, espazio gutxi kontsumitzen eta balio erantsi gehiago reagitzen duten enpresak direlako.

Zentzu horretan, Irungo eta Hondarribiko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren ekintzak ekimen pribatuarekin batera koordinatu behar dira, Miramongo Teknologia Parkearen zabalkuntza Zubietako lursailean gauzatzea lortu dadin. Aukera honen aldeko apustu handiena egiten ari dena EAJ-PNV da, urrats zehatzak emanez eta adierazpen publikoak eginez. Estatuko Aurrekontu Orokorren negoziazioan, EAJ-PNVk 2 milioi euroko partida lortu zuen lurzorua erosten hasteko. Gainera, Diputatu Nagusi eta EAJ-PNVko hautagaiak aukera honen aldeko apustu sendoa egin du, hautagai sozialista Eibarko Polo Teknologikoan inbertitzearen alde publikoki azaldu den bitartean.

- Irunen, **formazio gune garrantzitsuak** kokatzen dira. Mondragon Unibertsitatea, FP, ITC, etab. Hauek beren jarduera Irungo enpresa sarearekin harremanetan gauzatu dezaten ahalbidetu behar du Udalak.

- **Bidasoa Bizirik-etik** prestakuntza eskaintzen duten erakunde hauekin koordinazioa eta elkarlana sustatu behar da, hirian garatu daitezkeen zentru hauetako ekintzaileen proiektuak bultzatzea ahalbidetuko dituzten programen aukerak sortuz eta zabalduz.

- Alde batetik, finantziazioaren bilaketaren -publiko edo pribatua (EBko laguntzak, estatukoak, forukoak edo udalekoak)- laguntzan.

- Eta bestetik, enpresa bezala ideiarekin definizioan eta antolakuntzan laguntza teknikoak erraztuz.

- Irunek ezin ditu gure hirian **jarduera tradizionaletara zuzendutako enpresak** ahaztu. Hauei lan horretan jarraitzeko baldintzak eskaini behar zaizkie. Aipamen berezia merezi du garraioak eta logistikak. Gure ekonomiarentzat sektore garrantzitsua da zalantzarik gabe, eta laztasun bereziarekin krisiaren ondorioak eta sektorea bera ezagutzen ari den aldaketak jasaten ari da.

- Erabilpenik ez duten **lurzoru industrialen kudeaketa**. Saihestezina da zenbait enpresa proiektuk porrot egitea eta okupatu dituzten espazioak denboraldi baterako erabilpenik gabe geratzea. Udalak lurzoru hauen kudeaketan eragile aktibo bihurtu behar du, abandonatuta geratu diren denbora ahalik eta txikiena izan dadin. Irunek daukan industria lurzoru eskasia dela eta ezin ditu espazio horiek urteetan zehar aprobetxatu gabe eduki. Okupatu gabeko espazioen errolda egin beharko du Udalak, baita neurri suspergarri eta zigortzaile-sorta martxan jarri ere.

Merkataritza eta zerbitzuak

Zerbitzuen sektoreak Irungo enpleguaren biltzen du.

Udal administrazioa hiriaren zerbitzura.

- Lizentzia eta gainerakoei dagokienean, ez du oztopo bat izan behar. Guztiz kontrakoa. Denda berrien irekiera ahalbidetu behar du.
- Udal erakundeetatik merkataritzaren sustapenerako egiten diren kanpainen diseinu eta aplikazioan merkatarikari elkarteak aktore garrantzitsu bezala onartzea. Beraiek dira dakitenak.

Irun, **eskualdeko erreferente komertzial** bezala sustatzea. Publizitate kanpaina “instituzionalak” Iparralden, Txingudin, Bortzirin,...

Hiri-merkataritza ereduari babesa, ez bakarrik hirigunean. Auzoko merkataritza ere sustatu behar da auzoetako bizitza mantentzen,

funtzio soziala betetzen duen neurrian.

- Ez dugu merkataritza diru publikoaren bitartez mantentzea proposatzen. Gure dende betetzen duten zeregin soziala onartu behar da, tasei, merkatal sustapenari, irisgarritasunari, txandakako aparkalekuei, etab.ei dagokienean neurri sorta bat ezarriz.
- Denbora luzez itxita dauden merkataritza-lokalen presentzia aurre egin behar zaion arazo bat da. Alde batetik, itxita dagoen lokalak potentzialaren desaprobetxamendua adierazten du, eta bestetik, inguruaren gainbeherara laguntzen du.

Udaletxearen ekonomia

Irungo Udalaren egoera ekonomikoa kezkarria da. Hainbeste urtez agintean egon den Gobernu sozialistak, funtzionatzeko bakarrik izugarritzko baliabideak kontsumitzen dituen erakundea utzi digu, muskulu finantzierorik gabeko udaletxea, hiriak behar duen inbertsioa finantzatzeko beharrezkoa den aurrezkoa sortu gabe. Azken finean, gure udalak bere inbertsiorako gaitasun osoa E-Planetarako edo antzekoetarako uzten du, ez baita bere bitartekoekin bakarrik finantzatzeko gai. Kudeatzeko eredu hau agortuta dago.

Udaletxearen kudeaketa ekonomikoari lotuta, ezinbesteko helburu bat azpimarratzen dugu: inbertitzeko gaitasuna berreskuratzea eta Udalaren zorra murriztea ahalbidetuko digun aurrezteko gaitasuna errekueratzea. Aurrezteko gaitasun hori gastu korrontea eutsiz handituko da, udal kudeaketa austeritate eta lehentasun irizpideetatik gidatuz.

- Udal ekonomiaren ratio finantzarioak berrerekatzea ezinbestekoa da. Egungo gobernuaren kudeaketapean, Udala, funtzionamendu gastuetan bakarrik, urtean 41 milioi euro kontsumitzen dituen erakundean bilakatu da. Zenbateko honek 2011rako aurrez ikusia zegoen inbertsio netoa 6 aldiz biderkatzea suposatzen du.
- Biztanle bakoitzeko udal zorra handitu egin da azken denboraldian, Gipuzkoako batz bestekoaren gainetik jarriz. Datozen urteetan hau itzultzeak udal baliabideen atzerakada suposatuko du.
- Hainbeste denboran Udal Gobernuan aldaketarik izan gabe, beharrezkoa da ZERO OINARRIko aurrekontu bat egitea, aurreko errealitate guztia zalantzan jartzen duena eta Udaletxeak egin beharreko gastu guztiak justifikatzen dituena.

Aurrekontu kontrolari dagokionean, iragan hurbilean egindako hutsegiteetatik ikasi behar da. Krisiak agerian utzi du Udaletxeak kontaktzen dituen diru-sarrerak ez direla beti aurrez ikusitakoaren arabera egiten. Hauek gutxitzearen aurrean, Udal administrazioak

bere gastuen erritmoa egokitzeko gai izan behar du, aurrekontu defizit gehiagotan ez erortzeko. Defizitak zor gehiago eragiten du, inbertsiorako gaitasuna lermatzen du eta horrekin hiriaren etorkizunaren garapena. EAJ-PNVk, beraz, ondorengoa proposatzen du:

- Departamentu bakoitzak arrisku plan bat egingo du, diru-sarreraren eboluzioaren arabera, urtean zehar gastuak murriztea ahalbidetuko diona. Aurreko urteetan, gastua eustean Udal Gobernuaren erreakzio gaitasun faltak 11 milioi euroko zorpetzea ekarri du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Kopuru hau datozen 3 urteetan itzuli beharko du Udalak.
 - Gastuaren kontrolaren antolatze-eredua aldatzea, Udal antolakuntza osora austeritate eta ardura-kultura zabaldu dadin. Aurrekontuak, benetan, gastuarentzat mugan bihurtu behar du.
 - Udal Gobernuak Udaletxeko informazio ekonomikoari buruz duen ikusmoldea aldatuko dugu. Hiritarrei eta zinegotzietan ematen zaien informazioan gardentasun-irizpideak aplikatu behar dira. Informazioa ez da Gobernu Taldearena bakarrik. Batetik, talde politiko guztiei helarazi behar zaie beraiek nahiago duten kopuru eta formatuan. Bestetik, udal webgunean eskuragarri egon beharko du, hiru hilabeteko aldizkakotasunarekin. Udal finantzen ezagutza handiagoak kudeatzaile txarraren deserosotasuna eragin dezake, baina beti izango da hiriaren onurarako.
- Politika fiskalari** dagokionean, presio fiskala ez da KPI-aren igoeraren gainetik igo behar.



**HIRIGINTZA,
MUGIKORTASUN
ETA INGURUMENA**

HIRIGINTZA, MUGIKORTASUN ETA INGURUMEN PROIEKTUA

Irunek nortasuna eta izaera definitua duen hiri bezala finkatzeko aukera handia du bere aurrean, ez bere baldintza geografikoarengatik bakarrik, enplegu, aisialdi eta natura eskaintzan zabaltzeko aukerarengatik baizik. Azken finean, Irun bizitza proiektua eraiki daitekeen hiria da.

Horretarako, Irunek hirigintza lasaiari erantzuten dion hiri-eredua jarraitu behar du, hazkunde sosegatu eta iraunkorarekin eta hiri barrurantz doan hazkundearekin, kanporantz handitu gabe eta hiriko gune degradatuak aprobeztatuz, horiek kalitatezko hirigintza eskaintzea ahalbidetuko duen aukera eta apustu bilakatzeko.

Ilido horretatik, Irunek ingurumenaren hobekuntzaren eta errespetuaren aldeko apustu sendoa behar du, bereziki, gure eremu babestuen alde, baina baita landa gunearen alde, bere garapena belaunaldi berrientzat etorkizuneko bermea izan dadin. Horretarako hiritarrei eskainitako zerbitzuen hobekuntzei ezin zaie uko egin: garraiobidetan hobekuntzei eta modernitatea sartzeari, kirol, kultur, aisialdi instalazio berriei, etab.-eri bizi kalitatea lortzeko helburuz.

Hori guztia bokaziotik eta hiritarren elkarlanerako konpromisotik egiten du EAJ-PNVk, Irungo hirigintza-apustuak zehazterakoan gardentasun osoz jokatzuz, **hiritarren parte-hartzea** eta erakunde guztien arteko elkarlana sustatuz, beharrezkoa den elkarlan publiko-pribatua ahaztu gabe. Izan ere, asmo handiko horrelako helburua ezinezkoa da hirigintzan parte hartzen duten eragile guztien partaidetzarik gabe.

Programan zehaztu ditugun proposamenekin Irun hiri bizigarriagoa, ingurumenarekin errespetagarriagoa, hobeto komunikatua bilakatu nahi dugu, non lan egitea, gure denbora libreaz eta aisiaz gozatzea, arazorik gabe mugitzea, azken finean, **bizitza proiektua egitea posiblea den**.

Nola zehazten da hau guztia? Gure proposamena ondorengo ekintzen bultzada eta garapenarekin gauzatuko da:

Hirigintza

Azken urteotan PSE-EEren gobernuak Hirigintza Arloan burututako kudeaketa argi eta garbi defizitarioa izan dela ikusi dugu, udal kudeaketa publiko ausarta eta erabakigarria behar zuten hiriko gune degradatu horiek ahaztuta geratu baitira, trenbide gunea berrantolatzeko protokoloa edo San Juan-Etxeandiako obrak bezalako aurrerapen xumeekin, baina gai handien irtenbidea emateke dagoelarik. Horregatik, EAJ-PNVtik, denborarik galdu gabe, ondorengo proiektuak gauzatu nahi ditugu:

1. Trenbide gune osoaren berrantolaketa proiektuaren aldeko apustu garbia, lur-zoruak liberatuz eta etxebizitzara, ekipamendu berrietara -tren geltoki berrira, autobus geltoki berrira, merkataritzara, hiriarentzat bide-lotura berrietara, etab.- dedikatuz; proiektuaren garrantzia eta hori kudeatzeak dakarren zailtasuna kontuan hartuta, beste lekuetan aurrera egin behar dugu, behintzat modu probisionalean, gure hiriko ekipamenduen defizitarekin.

2. Alde Zaharraren eraberritzea Ama Shantaleraino doan kanala berriritartuz, Korrokoitz eta Papineako urbanizazio-planak abian jarritz, Urdanibia plaza berriritartuz eta ARLaren barruan, gure Alde Zaharreko etxe bizitzeko fatxada eta eraikinak konpontzeko eta modernizatzeko aurrez ikusia dagoen programa handia martxan jarritz.

Proiektu honen garapenerako, zinegotzi-ordezkarri baten irudiaren beharrez sinesten dugu, Hirigintza eta Obra arloan kompetentziekin eta ordezkaritza honetara atxikitutako staff teknikoaren sorrerarekin

batera. Honela, datozen 4 urteetan, gure hiriaren benetako idiosinkrasia irudikatzen duen gune adierazgarri horren erabateko eraldaketari ekin ahal izango zitzaien.

3. San Juan eta Etxeandiako eremuen berriritartzearen amaiera.

4.- Modalitate desberdinetan babes publikoko etxebizitzaren aldeko apustu handiena bezala, **San Miguel-Anaka proiektuaren bultzada** eta martxan jartzea, Anaka eta San Miguel auzoak lotuko dituen eta gune berdeen eta kirol guneen bitartez, bi auzo hauetako ekipamenduen defizita konponduko duen hirigintza-operazio garrantzitsu batekin.

5. Pio XII, Lopez de Becerra eta Kolon ibilbidea guneak birgaituko dituen Plan Berezi baten onarpena. Interesen bat-egite ahalbidetuko duen Elkarlan publiko-pribatu batetik eremu honen eta hiriko erdigunearen irudia aldatuko lukeen plan honen kudeaketa gauzatzeko litzateke.

Ingurumena

Hauak dira EAJ-PNVk egiten dituen proposamenak:

1.- **Olaberriako bailara babesteko Plan Berezi** bat idaztea eta onartzea, non ingurumenaren babesaren eta gure baserritarren erabilera tradizionalen mantenuaren arteko beharrezko oreka nagusituko litzatekeen.

2.- **Aiako Harriak Parkearen kudeaketari bultzada** eta garapena.

3.- **Plaiiaundi kirol gunea** lekuz aldatzeko kudeaketa erabakigarria eta Ekologia Parkeari bultzada.

4.- Errausketari buruzko eztabaida gaindituta, birziklatzearen, berrerabileraren, 5. edukiontzia ezartzearen eta **Garbiguneen aldeko apustua**.

5.- Energia edo panel fotovoltaikoak bezalako **energia iturri alternatiboen aldeko apustua**.

6.- **Kutsadura akustikoari amaiera** emango dion zarataren ordenantza baten onarpena.

7.- **Hiriko gune berdeen zabalkuntza**, bereziki Osinbiribil, Gain-Gainean parkeena eta Buenavista mendixkarena.

Etxebizitza

1.- **Oñurre eta Txenperenean aurreikusiak dauden etxebizitzaren eraikuntzari** bultzada erabakigarria.

2.- Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, **San Miguel-Anaka eremuan aurreikusiak dauden 1.000 etxebizitza berrien eraikuntza**, babes ofizialeko modalitate desberdinetan.

3.- Plan Orokorrean ekimen partikularreko eremu desberdinetan aurreikusiak dauden **babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzari bultzada**, hala nola, Porcelanas Bidasoa, Mendipe, etab.

4.- **Etxebizitzaren alojeraren eskaerari babes osoa**, proiektu desberdinen bideragarritasunaren arabera eta eremu bakoitzak ahalbidetzen duen ehuneko eza ezarri beti ere. Honen kudeaketa IRUNVIren bitartez egingo litzateke.

Jarduera ekonomikoak

1. EAJ-PNVk eta Gobernu Zentralak bultzatutako akordiotik, eta Hondarribiako udalerriarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, **Zubietako Teknologia Parke** berriaren onespina eta martxan jartzea.

2. Hirian enpresa berrien ezarpenari babesa, hala eskatuz gero, **ARASO eta ZALDUNBORDA**ren zabalkuntzaren bigarren fasea martxan jarritz.

3. **Erabiltzen ez diren lurzoru industrialen** kuantifikazio eta sailkapena, proiektu bideragarriak dituzten enpresei eskaintzeko.

Ekipamendu berriak

1. Hurrengo agintaldian zehar, **Arbesko Egoitza berriaren eraikuntza**.
2. **Plaiiaundiko kirol instalazioen**, atletismo pistaren eta errugbi zelaiaren lekualdatzea Zubietako parke berrira.
3. Ficobako aparkalekuan **behin behineko autobus geltoki baten eraikuntza**, Trenbide Gunearen berrantolamenduan bere kokapena zehazten den bitartean.
4. **San Juan-Etxeandian Udal Liburutegi** berriaren obraren amaiera eta ondorengo ekipamendua.
5. **Pilota profesionalerako frontoi** berriaren eraikuntza, Iparralde-Galeko bideragarritasun ekonomikotik bereiztuz eta bere kokapena Alde Zaharreko berrantolamenduan barruan baztertu gabe.
6. Ventasen, Aranibarko industriagunearen barruan aurreikusia dagoen eremuan, **kirol gune berri baten eraikuntza** auzo horretan kirol ekipamenduen arloan dagoen defizitari erantzuna emateko.
7. Joko eta kirolen praktikarako, hiriko gune desberdinetan **aire libreko balio anitzeko kantxen ezarpena**, erabilera ireki eta doakoa.

Trafikoa eta mugikortasuna

Azkeneko 8 urteetan Gobernu Sozialistak inongo trafiko eta mugikortasun planik gabe egindakoari so eginez, eta batez ere, Kolon ibilbidearen birurbanizaziotik hona, gure hirian, trafikoari dagokionean, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira. Horrek guztiak gure hiriak trafiko jasan ezina izatea ekarri du.

Hori dela eta, salatzen dugun egoera hobetzeko, ondorengo proposamenak egin nahi ditugu:

1. **Kanpoko bideari** dagokionean, ezinbestekotzat jotzen dugu ondorengo ekintzak egitea:

- Iparraldeko ingurabidearen destolestura Osinbiribileraino. Ekintza hau, jada, aurreikusia dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetan. Era berean, Behobiarainoko luzapenaren proiektua egitea.
- Hegoaldeko ingurabidearen exekuzioa, Oñurre eta Txenpereneako eremuetan aurreikusiak dauden bide berriak garatuz, eta hauek Olaberriako biribilgunearekin lotuz.
- Ventasetik Behobiarainoko bide-sariaren liberazioa, Olaberrian sastada berri bat jarritz.

2. **Barruko bideari** dagokionean, ondorengo ekintzak azpimarratu behar ditugu:

- Garraiobide publikoaren eta txirrinduaren erabilera sustatuko duen Trafiko eta Mugikortasun Plan baten erredakzioa eta onespina.
- Ekialdea eta mendebaldea erdigunearekin arintasunez lotuko duen lurgaineko tranbiaren ezarpena, garraiobide moderno eta eraginkor bezala.
- Hirian, mota guztietako leku-aldatzeak (iparraldetik hegoaldera, eta ekialdetik mendebaldera) ahalbidetuko dituen eta Txingudiko hiru hiriak lotuko dituen bidegorri-sare jarraia martxan jartzea.

Ezinbestekoa da lehenengo fase batean bidegorri-sarea hirigunera, Kolon ibilbidera, Nafarroa, Gipuzkoa eta Iparralde hiribideetara iristea hiriko arteria nagusi bezala.

- Luis Mariano bezalako merkatal eta oinezkoentzako eremuetan ibilgailu zirkulazioa arautuko duen ordutegia ezartzea aparkaleku expresak dituzten guneekin -gehienez 5 minutu-, horrela, duela urte batzuk izan zuten jarduera suspertzeko.
- Pixkanaka, hiriko hainbat lekutan erdiko erdibitzaileak kentzea, Nafarroa hiribidekoak eta Gipuzkoa etorbidekoak esaterako, trafiko arintasuna oztopatzen baitute.
- Behobia, Ventas, Hondarribia eta Iparraldetik hirigunerako irisgarritasuna hobetzea.
- Elizatxo etorbidean, Euskalherria hiribideko biribilgunetik Oñaurrerainoko zatia zabaltzeko azterketa egitea.

- Almirante Arizmendi kalearen irekiera.
- Cipriano Larrañaga kalearen luzapenaren azterketa Lope de Irigoyen kalearen elkarguneraino.
- Artia-Ibarla-Blaiako kanposantuan biribilgune bat eraikitzea.
- Lope de Irigoyen-etik Mendeluko biribilguneraino 3. erreia ezartzeko azterketa.
- Ventasko industrialdean Oiartzungo errepidearekin lotura.
- 54 poligonora sarrera lotura berria.
- Iparralde etorbidetik Mendibilgo Egoitzara zein parke eta Musika Kontserbatoriora irisgarritasun hobea ahalbidetzen duen igogailuaren instalazioa.
- Hesi arkitektonikoak ezabatzea, espaloiak beheratuz, eraikin publiko eta pribatuetara eta adineko pertsonak dauden egoitzetara sartzeko arrapalak ezarri, etab.

Azken finean, gure hirira sartzeko igarobide orokorren eta hiriguneko bide-sarea hobetzeko proposamen eta proiektuen multzoa aurkezten du EAJ-PNVk, ibilbide berriekin, norabide aldatetekin, lurgaineko zein lurrazpiko aparkalekuetarako sarbideen hobekuntzarekin, jarraipena duten bidegorrien ezarpenarekin eta, dudarik gabe, egungo egoera penagarria hobetzera lagunduko duten makina bat neurriekin.



**GIZARTE
ONGIZATEA**

GIZARTE ONGIZATE PROIEKTUA

Ongizatea: pertsona ororen eskubidea

Irun eraikitzeko garaian, pertsonak duten ezinbesteko garrantziaz ohartzen gara eta beraz, gure obligazioa hiritarren beharretara modu arin eta eraginkorrean egokitzea da.

Horretarako, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Legearen espiritua jarraituz, pertsonaren gizarte ongizatea lehenengo, bere autonomia pertsonalean hasten dela uste dugu, ondoren, bere familia ingurunera, komunitatera, kalera eta auzora zabaltzeko.

EAJ-PNVn **ardura publikoa**, **parte-hartzea**, elkarbitzita eta kooperazioa gizarte demokratiko eta aurreratu baten ardatz izatearen aldeko apustua egiten dugu, eta politika egokien planifikazioa ere defenditzen dugu berdintasuna eta gizon-emakumeen benetako ongizatea lortzeko.

Honengatik guztiarengatik, Irunen gizarte zerbitzu eredu hurbilagoa sortzea beharrezkotzat jotzen dugu, auzoetan egongo diren zentruarekin deszentralizatua, eraginkorrak, pertsonen benetako beharrei erantzungo dietenak eta administrazio zerbitzu azkar eta malguak, gizarte langileez,

teknikari adituez eta gizarte hezitzaileez integratuak.

Zorionez, Gizarte Ongizate Arloak bere profesionaltasunarengatik eta inplikazio pertsonalarengatik bereizten diren pertsona taldearekin kontaktzen du, beraz, ziur gaude lan talde parte-hartzailea eta dinamikoa osatuko dugula, non beren esperientzia funtsezkoak izango den gure proposamenen garapenerako.

Honekin lotuta, Auzoetako Batzordeen sustapena proposatzen dugu gizarte eragile guztiak barneratuz: Auzo, kultur, kirol, emakume, gazte, adineko pertsonen elkarteak... Hauek beren ekintza guztiak harmonizatuko dituzte Udal Koordinazio Zentro baten bitartez eta Gizarte Ongizate Kontseilua bultzatuz.

Adinekoak: hobeto zahartzen

Zahartzea lorpen sozial eta pertsonala da. Zahartzaroa bizitzako etapa atsegingarria da, ona eta positiboa. Hau da, «bizi itxaropenaren handitzea», ondo gaudenaren eta hoberantz joan nahi dugunaren adibide argia.

Horretarako, prebentzioan eta integraltasunean lan egingo duten politikak behar ditugu. Gure helburua **Adineko Pertsonen Tokiko Plana** sustatzea da, zahartzea bizitzea delako eta denoi eragiten gaituelako.

Adineko pertsonak gizarte kapital garrantzitsua suposatzen dute. Horietako asko baldintza fisiko eta mental egokian aurkitzen dira eta zahartze aktiboa babestuko duten politikak eskatzen dituzte.

Ez dugu ahazten adineko pertsona askok pairatzen duten isolamendu egoera berezia, sarritan bere bizilekuak baldintzatuta (baserriak, etab.). Beren bizi proiektuek kultur edo kirol zerbitzuen bidezko laguntza behar dute, irisgarritasuna erraztuz, eta gainerako gizartearen esku beren

esperientzia, jakituria eta baliabideak jartzen dituzte, beste pertsonen ongizatean laguntzen.

Bizi itxaropena areagotzeak mendekotasun egoerak gehitzea ekarri du. Erakundeen arteko elkarlan koordinatua beharrezkoa izango duen erronkari aurre egin behar diogu. Egoitza zerbitzuak ingurunean bertan zahartzeko nahia betetzea ahalbidetuko duten bestelako zerbitzuen azken mailan egon behar du.

Hau errealitate bat izan dadin, menpekotasuna duten pertsonen zein familia zaintzaileen beharrak asetuko dituen zerbitzu-sistema baten sorrera proposatzen dugu. Lehenengo kasuan, zerbitzu profesionalizatu eta kalitatezkoa eskainiko duten hitzarmen-formula baten bitartez. Bigarrenean, arlo horretako programa eta laguntza eskaintza areagotuz.

Berdintasuna: benetako berdintasuna eraikitzen

Datozen lau urteetarako gure erronka gizon-emakumeen arteko desberdintasunak murriztea da, politikan zein erakundeetan, ekonomia, enpresa, kultur edo gizarte alorretan, erabakiak hartzen diren mailetara emakumeen sarrera bermatuz.

Egungo genero desberdintasuna, gizarte arazo larrienetariko bat da, emakumeen aurkako indarkeria espresiorik handiena eta gogorra izanik. Indarkeria honen amaiera lortzean jarriko ditugu gure ahaleginak, gizarte kontzientziario lana eginez eta horri aurre egiteko estrategiak eskainiz. Batez ere, gazteen artean sakonduko dugu gai hau. Horretarako, gazteei indarkeria sexista antzeman eta aurre egiteko tresnak eta baliabideak ahalbidetzen dizkieten ekimenak indartu behar ditugu, heziketan, portaera sexisten prebentzioan lan eginez eta indarkeria mota ororen aurrean, rol aktiboa hartu dezaten animatuz.

Gainera, hirigintza esparruan, puntu beltzak edo segurtasun gutxiko guneak ezabatzen jarraitu behar dugu.

Emakumeen beste talde bereziki kaltebera alargunena da, izan ere, horietako asko pobreziaren atarian bizi dira. Baita 70 urtetik gorako

emakume ezkongabeak ere, beren bizitza osoa gainerako familiakoak zaintzen eman dutenak, inoiz kotizatu gabe.

Kirol eremuan, lekuko emakumeen kirola sustatuko dugu.

Eta inmigrazioari dagokionean, kultur aniztasunaren kudeaketan genero ikuspuntua sartzeko jarduerak garatuko ditugu.

Era osagarrian, tokiko erakundeek gay, lesbiana eta transexualen, eta arraza eta sineskera guztietako pertsonen eskubideak bermatu behar ditugu, berdintasunaren eta errespetuaren balioa sustatzen, eta gizarte integratzailea lortzera laguntzen.

Kultur aniztasunaren kudeaketa: gure elkarbizitza aberasten

Integrazioa, gizarte kohesioa eta elkarbizitza gure hirian geratzera eta beren bizi proiektua gauzatzera etortzen diren inmigrante eta atzerritarrentzat ahalegin eta erronka nagusi bilakatzen dira, baina baita pertsona hauek hartzen dituzten gizarte eta botere publikoentzat ere. Guztioi dagokigu Irun hiri integratzailea izateko lan egitea.

Horretarako, garrantzi handikoa da bertako pertsonen eta jatorri eta kultura desberdineko pertsonen artean elkarbizitza sustatzea. Errealitate bakoitzera egokitutako integrazio-politikak lideratzeko konpromisoa hartu behar dugu, baita bestelako botere publikoekin elkarlanean eta koordinaturik jardutera ere.

Kultur aniztasunaren kudeaketaren benetako eredu batean oinarriturik, ondorengo proposatzen dugu:

- Harrera, **integrazio eta kultura arteko elkarbizitza** prozesu osoa modu eraginkorrean koordinatuko duen udal zerbitzua finkatzea.
- Atzerriko pertsona inmigranteentzat **integrazio eredu sozio-kulturala** garatzea, Irungo bizitza sozialean beren parte hartzea sustatuz.
- **Udal informazioa hizkuntza gehiagotara itzultzea** eta izapide administratiboetarako interpretazio zerbitzu eraginkorra sortzea.
- **Kulturen arteko bitartekari eraginkorra bermatzea** Irungo auzo zehatzetan bizi diren pertsonen elkarbizitza zailtzen duten egoerei irtenbidea emateko eta bizilagunen segurtasuna bermatzeko helburuz.

Osasun publikoa eta kontsumo arduratsua

“**Irun hiri osasuntsua**”-ren garapena mesedegarri egiteko, gure zaharrentzat zein hiritar guztientzat osasunaren sustapenerako politika eraginkorrak bultzatzea proposatzen dugu ariketa fisikoen tailerren, hitzaldien bitartez, etab.

Era berean, gazteen artean drogen eta alkoholaren kontsumoa saihesteko, ekintza sozio-kulturalen eskaintza areagotzea eta kale-hezitzaileen zerbitzua indartzea proposatzen dugu.

Elkartasuna: irun solidarioa kanporantz eta barrurantz

Frogatuta dago hiri solidarioa garela, baina garrantzitsua da aurrera jarraitzea. Horretarako ondorengo proposatzen dugu:

- Garapenerako lankidetzara zuzendutako baliabide ekonomikoen kudeaketan, eraginkortasunean eta gardentasunean kalitatearen aldeko apustua egitea.
- Harreman solidarioen garapenean erakundeekin lan egiten duten Euskal Fondoak, Tokiko Erakunde eta Euskal Kooperanteak bezalako sareak berrindartzea.
- Elkartasuna, genero berdintasuna eta giza eskubideen errespetua bezalako balioak sustatzea, batez ere, pertsona gazteen artean.
- Gizarte bolondres izateko esperientziak sustatzea, bai gure hiri barnean eta baita kanpoan ere.
- Pobreziaren aurkako akordioarekin lotutako ekintzak bultzatzea.
- Merkataritza justuarekin lotutako ekintzak bultzatzea.
- Erosketa publiko etikorako irizpideak sartzea.
- Sentsibilizazio kanpainak bultzatzea.

Hiritarren segurtasuna

Gure herri eta hirietan delituen indizea nahiko baxua izan arren, segurtasun falta da hiritar askoren kezkarik handiena. Segurtasuna ez da polizia kontua bakarrik, fenomeno global bat bezala ulertu behar da, non faktore sozial, ekonomiko eta kultural desberdinek parte hartzen duten. Modu koordinatuan parte hartu behar da dagokien zerbitzu publikoetatik eta hiritarren parte-hartzearekin.

Horregatik, pertsonen, jabetzaren eta lurraldearen gaineko segurtasun politiken garapenaren aldeko apustu sendoa egiten dugu, baita gizalegetasun eta elkarbizitzaren sustapenaren alde ere. Horregatik, ondorengo neurriak ezinbestekoak dira:

- Gure hiriko kaleetan poliziaren presentzia areagotzea eta ikusgarri bilakatzea.
- Delituen prebentzioan eta jarraipenean, teknologia berriak aplikatzea.
- Ertzaintzaren, Udaltzaingoaren eta gainerako segurtasun indarren arteko koordinazioa hobetzea, akordio eta jarduera protokoloen bitartez.
- Udaltzaingoaren prestakuntza jarraituan eragin.

- Gizarte eragile garrantzitsuenen arteko koordinazioa areagotu segurtasun neurrietan parte hartzeko eta informatzeko.
- Delituen biktimei babesa eman, batez ere, genero indarkeriaren biktimak izan direnei.
- Gazteen delinkuentziari aurre egiteko, ikastetxeetan drogak ezabatzeko eta ingurumena babesteko planak garatzea.
- Bide-segurtasuna hobetzeko modu zehatzean lan egitea.
- Merkataritza segurtasunerako plan zehatzak garatzea.
- Pertsonen errespetu falta bezalako bizilegetasun faltaren aurkako neurriak praktikan jartzea, atsedenerako, paseatzeko, askatasunez ibiltzeko edota gure herri eta hiriez gozatzeko eskubidea bermatzeko.



KULTURA ETA KIROLA

KULTUR ETA KIROL PROIEKTUA

Gizarte aurreratu batean, kultura da hiritarrek egiten duten eskaririk handienetakoa, eta horregatik Udalak eskari horri erantzuna emateko ardura du, kulturaren adierazpen guztiei tokia emateko guneak ahalbidetuta, bereziki sormena eta berrikuntza garatzen dutenei. Ezin dugu ahaztu kulturak dimentsio ekonomiko handia duela, hirietan era berezian bistaritzen dena, eta toki eta nazioarte mailako hiri turismorako eta sormen talentu berrietarako gune bilakatzen dela. Testuinguru honetan, udal esparrutik honako neurri hauek hartuko ditu EAJ-PNVk kultura sustatzeko:

- Kalitatezko kultur egitarau anitz eta zabala eskaintzea eta ezagutzera ematea.
- Sormena eta arte sorkuntza babestea eta sortzaileei, bereziki gazteei, beren arte jarduera garatzeko esparruak ahalbidetzea.
- Izaera pribatuko kultur mugimenduekin eta elkarteekin lankidetzan jardutea.
- Kultura erakarpen turistikorako elementu gisa erabiltzea.
- Esparru publikoa kultur jardueretarako gune gisa sustatzea.

Bestalde, Udala kirol zerbitzu publikoen kudeatzaile nagusia da, hiritargoarekiko duen hurbiltasun mailagatik. Lekuan lekuko kirol jardueraren garapen eta sustapena ahalbidetzeko eta errazteko

erakunderik egokiena da, udal kirol eskolen bidez, kirol patronatuen bidez eta toki izaerako kirol elkarten bidez. Kirolaren toki sustapenak honako jarduera lerroak aurreikusiko ditu:

- Kirolaren abantaila eta baloreen sustapena.
- Kirol instalazio eta ekipamenduen garapena eta orain daudenak mantentzea eta berriztatzea.
- Kirol elkarte eta klubekiko lankidetzeta eta laguntasuna.
- Gazte, emakume, adineko eta pertsona ezinduen artean kirola sustatzeko berariazko egitasmoak garatzea.
- Bertako kirolak babestea.
- Kirol lehiaketa eta gertakariak erakartzea, antolatzea eta babestea.
- Kirolak gizarteratze eta kirol mestizajearen ekarpen modura eragiten dituen gaitasunak garatzea.

EUSKARA PROIEKTUA

Euskal gizartearen ezaugarria da ondo zehaztutako nortasuna ematen diguten baloreak ditugula. Kultur propioa eta hizkuntza propioa dugu, toki esparrutik bertatik balora daitezkeenak.

Euskarak etorkizunera begira duen erronka bere erabilera da. Udalak datozen urteotan egin beharreko ahaleginak bideratu behar ditu euskararen erabilera eszenatoki zehatz batzuetan hedatzeko, erabiltzeko esparru berriak lortzeko eta beste batzuk indartzeko, egiazko elebitasunerako bidean aurrera egiteko estrategiaren barruan. Horregatik honako esparru hauek landu beharko dira:

- Euskararen aldeko adostasun sozial eta politikoa hedatzea eta indartzea eta hiritargoak erabilerarekin inplikatzeko eta konpromisoa hartzea.
- Eskola orduetatik kanpo, kultur, kirol eta aisialdirako jarduerak antolatuko ditugu haur eta nerabeei zuzenduta euskararen erabilera sustatzeko.
- Euskaraz egindako kontsumo produktuen ekoizpena eta banaketa sustatzea.

- Bizitza sozialean, euskararen erabilera erakunde publikoen jarduerarekiko aniztasun eta osagarritasun kontuetan bultzatzea.
 - Euskararen erabilera ahalbidetzea Udaletxe barruan eta Udalak hiritarrekiko harremanetan.
 - Euskara sustatzen duten eragile eta taldeekin lankidetzan jardutea.
 - Euskararen garapena ume eta gazteen artean bermatzeko egitasmo zehatzak garatzea.
 - Gurasoen euskalduntzea ahalbidetzea, euskara familian eta etxe barruko esparruan bultzatzeko.
 - Euskararen erabilera gizarte esparru zehatzetan bultzatzea, besteak beste, merkataritzan, kulturen eta aisialdian.
- Edozein kasutan, EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du udal hautetsiek beren jarduera publikoan euskara erabiltzeari lehentasuna emango diotela.

HEZKUNTZA ETA GAZTERIA PROIEKTUA

Hezkuntza eta gazteak: etorkizunean pentsatzen

Lan mundua eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dira gure gazteriaren emantzipazio prozesua zailagotzen duten eragozpenik nagusienak, gazteri honek hezkuntza eta prestakuntza arloan dugun arreta jaso beharko du, inor ere hezkuntza maila baxuan gera ez dadin. Honek lan eta gizarte etorkizun eskasa suposatuko luke, kontuan izanik Ezagutzaren Gizartean, gero eta lanpostu gehiago lanbide profesional maila ertain edo altuan izango direla.

Gazteriak erakundeen arteko esku-hartze koordinatua behar du. Udalak jarduera transbertsala bultzatu behar du bere udalerrian gazteria arloko ekimena garatzeko, eta udalez gaindiko erakundeen laguntasunarekin, elkartutako eta elkartu gabeko gazteen eta gazteriarekin erlazionatutako gizarte eragileen parte hartzea beharko da. Horregatik, EAJ-PNVk hurrengo neurri hauek hartuko ditu bertako eremuan:

- Hezkuntza eta prestakuntza sustatzea.

- Hizkuntza eta teknologia berrietako prestakuntzari bultzada eta laguntasuna ematea.

- Gure udalerrietako eskola eta formazio ekipamenduak hobetzeko lankidetzak.

- Eskola porrota ekiditeko egitasmo sozio-hezitzaileak martxan jartzea.

- Liburutegi publikoen dinamizazioa eta hobekuntza.

- Irakurketa sustatzea.

- Gazteen artean bizitzeko modu eta jarduera osasungarriak sustatzea, aisialdi parte-hartzailea bultzatuta eta jarduera kulturala eta gazteen mugikortasuna lagunduta.

- Baloreetan hezteak.

- Gazteria irundarrak parte hartzeko aholku batzorde bat martxan jarriko dugu, beren ideiak eta proposamenak helarazi nahi dituzten hiriko gazte taldeei hitza emateko helburuz.

ONENA EMATEKO GARAIA

PREST GAUDE